

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

AEBren putasemeari adio



1979ko matxinada sandinistaren argazki bat, Susan Meiselas argazkilaria egina. Azpian, Anastasio Somoza Debayle.



MANAGUA, 1979KO UZTAILAREN 19A. FSLNak (Frente Sandinista para la Liberación Nacional) Nikaraguako hiriburua hartu zuen eta, hala, Iraultza Sandinista abiatu eta somozatarren 40 urte baino gehiagoko diktadura bukatu zen.

Somozatarren diktadura 1936an hasi zen, Guardia Nazionaleko buru Anastasio Somoza García estatuko kolpea jo eta agintea eskuratu zuenean. Bi urte lehenago Somozak berak Augusto César Sandino jeneral nazionalista eta antiinperialista hil zuen. Diktadorea hil ondoren, 1957an Luis Somoza Debayle hartu zuen kargua eta, handik hamar urtera, Anastasio Somoza Debayle *Tachitok*. Hirurek Guardia Nazionala kontrolpean izan zuten eta, hala, inpunitate osoz agindu zuten, ustelkeria eta harrapakaria lege.

Baina 70eko hamarkadan gehiegikeriaren muga gainditu zuten. 1972an lurrikara batek Managua suntsitu zuen eta somozatarrek, nazioartean bildutako material eta diru-laguntzak berre-raikuntzara bideratu beharrean, poltsikoratu egin zituzten. Elizari eta burgesiari lotutako indar politiko eta sozial kontserbadoreek Nikaragua demokratizatzeko prozesua abiatu

nahi izan zuten elkarriketaren bidez, baina diktadoreak gogor erantzun zuen: Unión Democrática de Liberación alderdi kontserbadoreko buru eta *La Prensa* egunkariko zuzendari Pedro Joaquín Chamorro hiltzeko agindua eman zuen.

Diktaduraren helburua oposizio burgesa ahultzea zen, baina kontrako emaitza lortu zuen. Ordura arte zatituta zegoen gizartea batu egin zen. FSLN gerrilla mugimendu sozialista izan arren, diktaduraren aurka zeuden orotariko joerak biltzea lortu zuen.

Anastasio Somozak ihes egin zuen, Miami hasieran eta Paraguaira gero. Baina ERP talde argentinarrak 1980ko irailean hil zuen.

Gobernu berriak somozatarren ondasunak konfiskatu zituen eta nekazaritza erreformari ekin zion. Sandinistak herrialde demokratizatzen eta Estatu Batuekiko menpekotasuna astintzen ahalegindu ziren, gerra zibila hasi arte, alegia, AEBk Nikaraguan gertatzen ari zena gustuko ez zuela erabaki arte. Hamarkada batzuk lehenago Franklin D. Roosevelt presidenteak ez baitzituen hitz hauek alferrik esan: “Anastasio Somoza putaseme galanta da, baina gure putasemea da”.

Arrastoak

Edonork aurkitu dezake Tutankamon

HOWARD CARTER arkeologoak 1922an Tutankamonen hilobia aurkitu zuenean “gauza zoragarriak ikusten ari naiz” bota omen zuen. Bartzelonako Itsas Museoan hilobi ezagunaren inguruko erakusketa antolatu dutenek Carterrek sentitu zuena bisitarien esku jarri nahi izan dute. Irailaren 6a bitartean, hilobiaren erreplika zehatzean sartzeko aukera dago. Erakusketarako, hainbat egiptoar artisauek hilobiko mila objektu baino gehiagoren erreplikak egin dituzte, eta hala, hilobia Carterrek aurkitu bezalaxe deskubritu dezake bertaratzen denak.



Howard Carter Tutankamonen sarkofagoa aztertzen. Arkeologo ezagunak hilobia zabaltzean zer sentitu zuen jakin dezake orain Bartzelonara hurbiltzen denak.